

Euskal «Pasiñoia»

«Pasiñoia», Euskalerrian, beti izan da erriak biotz eta gogoetan sartua euki eta erabili daben irudipen errukigarri eta maitagarria.

Lengo denporetan gaur baiño geiago iruditzen zan gure erri askotan Kristo'ren nekaldia gizon eta emakume bizien bidez.

Oraindik geratzen dira orrela egiten daben erri batzuk: Balmaseda, Arkotxa eta abar.

Beste batzuk, Hondarribi, Segura, Ondarroa, Orduña eta abar, taillazko irudi ederren artean, irudi biziak be nastauten dituenak. Orrela Madalena, Beronika, Iru Mariak, Jerusalem'go alabak, Simon Zireneko, Pilatos, Borreruak, Apostoluak, Kristo berbera eta abar itxuratzen dira oraindik.

Bidasoaz beste aldean «pastural» zarren artean geratzen dira oraindik ortazko batzuk.

Len, eleiz barruetan be egiten ziran Kristo Kurutzetik erastea eta abar, baiña itxuraz ez beti zintzo eta lotsaz egin eta origaitik oitura ori galerazo eben eleizako agintariak.

Kantuzko pasiñoia be ba dago euskeraz.

Beloketar fraileak ba dauke «Pasiñoia». Arantzazukoak beste bat.

Alaz eta erriak, bertso eran egindako pasiñoi bat euki izan dau gogokoen.

Berreundik gora urte dira bizkaitar jesulagun batek, Aita Agustin Basterretxea'k, egin ebalá bertsoan.

Gure erriak orrelako bertsoak atsegiñez artzen zitun, nai ugari izan; irurogetak. Ala Genobeba Brabante'koarenak, Berriotxoarenak, azken juiziokuak eta abar. Alaz eta beste batek ez eban artu Aita Basterretxea'ren pasiñoiak añaño zabaltasunik.

Aita Basterretxea, nai ta liburu batzutan lekeitiar lez agertu, ispasterarra zan.

1.700 urtean jaio zan eta 1.761 urtean il.

Il eta amasei urte geroago argitaratu zan bere pasiñoia. Uste da ordurako erri askotan ezaguna zala, jesuita berberak erakutsita.

Lenengo berak erabilten eban izkeldi edo berbetako eran idatzi eban. Gero, Aita Kardaberaz'en eskutik gipuzkeratu zan.

Bilbo'n egin zan lenengo argitapena, eta bere ondoren, ogetak bidar egin dira bertso orrein ataraldiak eta lengo eleizliburu geienetan agertzen ziran.

Gaur be toki askotan abestuten da.

Ondarroa'n eguen eta bariku santuz, abadeak baiño lenago asten dituez «funtsiñoiak» apostolu jazten diran gazteak eta euren zeregiña «pasiño» orretako bertsoaldi batzuk abestutea izaten da. «Kristo» iruditzen dabenak bertsoak kantatu eta erriak erantzun «damu dot Jauna» gaz asten dan bertsoagaz errepi-ka egiñaz.

Onela asten dira Basterretxea'ren bertsuak:

*Jesu-Kristo'ri kendu ezker
pekatuakin bizitza,
balidin ez ba dot negar egiten
arrizkoa dot biotza.
Guztiok lagun,
kanta dagigun
bere penazko eriotza.*

Eta errepika au izaten da:

*Damu dot Jauna biotz guztitik
Zu ofendidu izana,*

*ez ez geiago pekatu-
nire Jaungoiko laztana;
lar da kulparik,
betoz argatik,
pena orreik niregana.*

Augustin ZUBIKARAI